### Geuk ikusi ta geu ere ikusi gagiezala

# Beribilla eta gaba

*Ezbearrezko bost eriotzatik lau uriak igarotean eta erdia... uritik kanpo, beranduko orduetan jazo oi dira.*

*Urteakaz gitxitu egiten da ikusmena: gero ta argitasun geiag... bear da, begiak osasuntsu euki arren.*

*Txoferrak edo beribil eroaleak aaztu egin oi dau, bere kotxe... txarto argituta ba'da, ostopo bat dala enparauen ikuspenerako.*

Ines Duke LEDOCHOWSKA...

ATSEGIN ez ba'yatzu saguak arrapatu ta atxillo artzea, itargia miauka agurtzen ez ba'dozu, txakur bat ikusiaz lepazurra zubitzen ez ba'dozu, edo-ta teillaturik teillatu ara-ona ez ba'zabiltz... zu ez zara gatu bat. Gogora eizu au, mesedez, gabaz kotxea zuzentzeko beribil zirrindola artzerakoan.

Bide segurantzan aituak diranak eztarria urratzeraiño dei dagie: illuntasunak aldatu egiten dau ingurua. Kotxea erabiltean au aaztutea, udan neguko soiñekoakaz ibiltea baizen zentzun-bakokeria dozu.

Ezbearrezko bost eriotzatik lau uriak igarotean eta erdiak baiño geiago uritik kanpo, gabaz ja... dira, naiz-ta ordu orreitan d... tzan kotxeak askozaz be gitx... izan.

### Iru ordu eriozkor

Rimbaud olerkariak arrats-b... aitatzen dausku, «ordu arats g... ori, lillirakor, maltzur, osa... eza». Olerkariaren barren ikus... bear bada? Nok jakin!

Estadistikak, alan be, erra... emoten dautsoe: bostetatik zo... retara ugaritzen dira istrip... txoferrak bear bada sostor eta d... gozpen geiago aurkitzen dabe... ko: itzaliaz doa egunkia, b... argi izunak ez dira oraindiño...

argi gitxi emoten dabe. Eta arratsaldeko illun-abarrean, ia andu guztiak, oiñezkoak eta aleferrak, daukie egin-bearren bat alean.

Berebillaren abiadeak eta ingurako argitasunak, kotxea ondo ta ondoraz zuzentzeko, asko esan nai dauen arren, ikusmena da gauzarik beiñena, garrantzitsuena, eurako larogetamar erabagi ikustera dauen danetik artzen dalako.

Egazkiñak eta itxas-ontziak «radar»a daukie euren bideari arrisku barik jarraitzeko. Berebillariak bere begiak ditu bakar-bakarrik ortarako.

Urteakaz gitxituz doa ikusmena. Ikusmen ona dauan berrogetamar urteko pertsona batek mailla bardiñeko ikusmena daukan ogei urtekoak baiño birritan argi geiago bear dau.

Beribillaren argiak, giza-begiak uste ez diran baiño urriñago el bear dabe: goiko argiak, gitxienez, eun metrora iragarri bear ditu gauzak; beekoak, barriz, ogetamar metrora.

Aurrez aurre datorrenari beeko argia itzaltzea aaztu egin yakola, ustekabe edo oker ori «txanpon bardiñez ordain« azotea, norbere goiko argiaz olakoa itsu-azo-, zorakeri izugarria litzateke. Gutxitu egin bear da abiadea, ez begitu zuzenean bestearen argietara, eta...norberekeri eioa uratsi.

## Mozkortuak, txakurrak eta alargunak

Kotxeak eta oiñezkoak, gaurko alkartu eziñeko izaki bik, banatzen dabe gogo txarrez eta erramuska guztiona dan uts-unea. Alkarrekiko bizitza aula, noski, edozein zabarkeri, oker edo ardurarik ezak trajedi biurtu leikeena.

Benetako ardurea eskatzen dabe urrean dagozan jatetxe, ardandegi ta akeitokiak: Bako'ren semeak, Noe'ren anaiak ezin asmatuzko era ta modu leiatsuan jokatu oi dabe sarri askotan.

Turut-otsen eta argi-ezaugarrien barririk ez dakian txakur batek beti ipiñi bear gaitu ernai, belarritente, naiz bakarrik dabillela naiz norbaitek zuzenduta. Ego-amerikar neska osagille bat, zuurtasunak eskatzen daben gitxienaz be aazturik, kamio bati aurrez aurre jarri yakon bere txakurtxoa zokatik ebala.

Errietako amamatxo orreik be, burutik beatzetara alargun-lutuz oso-osorik estalduta, arrisku ez txikiak dira bi aldetik: euren soiñeko baltzak itxargatzen ditu illuntasunean, eta urteen pixuak bakartu. Gitxi ikusten dabe, ta entzun gitxiago.

Baserri-bideetan, beste sostor batzuk jagi oi dira: zulo sakonak, ezaugarri bako makur-uneak, zubi oso medar-estuak, taket bako tren-bideak, abereen ibilpideak.

Bidea ondo jakiñagaitik, zurrena da eguzkia dagoanean baiño ordu-ko amabost bat kilometro gitxia-gora ibiltea. Gaba izanez gaiñera, euria ba'da, oraindik geiago gitxi-tu bearko da abiadea.

Txoferrik oituenak be, bere ko-txea gelditzera doanean, edo-ta beartua danean, aaztu daroana auxe da: eragozpen aundia dala bere kotxea beste txoferrentzako, Zergaitik? Oneik ezin daitekez konturatu, illun dalako, zure ko-txea geldi dagoan ala dabillen. Bi-detik arik ariñen ateratea, eta or-tarako diran argiakin jazoera bat dagoala iragarri, baita kotx doazan guztiak kotxetik jatsi be: guzti au zuurtasunak eskat dautzun beren-berengiko zer besterik ez dogu.

Aaztu ez daigun, zuurtasun ain zuzen be, naikoa dogu gog ekartea —etxeko ta laneko e rrakaz batera— bideetako puakaitik dagozala munduan bat eta ainbat ezindu, balio ta elbarritu.

*Aita ONAINDIA'k euken*

**Gogoan eukitzeko esaldia**

Munduan dan gauzarik zaillena idekitzen, adimen itxia dala.

**Lo dagoela ikusi nai**

Aoa zabalik arpegi itsusiaz edo ezainaz lo egiten ebala, esaten euts gizon bati. Gizon onek deitu eutsan bein morroe edo serbitzariari ta esa eutsan:

— Gaur ispilu bat ipiñi eikek neure oeko oin-aldean, bada lo nago neure burua ikusi gura dot, eta iakin egia ete dan ain ain ain itsusi ego nazan.

*«Euskalzale» aldizkari*